

PERTSONAIAREN LARRUTIK

Ez dute berdin hitz egiten amona moñodunak eta punki gandordunak. Bakoitzak bere janzkera du, bere nortasuna, bere filiak eta bere fobiak. Bakoitza bere zoroak bizi du... eta bere hizkerak!

Bi bertsolari ofizioka ari direnean, publikoak argi bereizi behar du nor den nor. Bertsolariak bere pertsonaia marraztu behar du, publikoak ikusteraino. Eta marrazteko, bertsolariak bi isipu ditu. Bere pertsonaiak zer esaten duen, eta zer egiten duen.



Igor
Menika
Bengoetxea



Doinua:
Aita semeak
Kopla handia



Pertsonaia estereotipatu batzuk aurkeztuko dizkigu jarraian Igorrek. Osa ditzagun koplak, neurria zainduz. Kontuz hankamotzik eta hankaluzerik egin gabe!

GELAKO TRIBUAK

Saiatuko naiz / gogoia etorri zait / hasi naiz gure gelako tribuen mapa egiten irakurri ta zuek ikusi baten / ia nonbaiten / zeinetan sartzen zareten.



PUNKIA

Punkiak dakar gominaz jarrita / kolorearekin / oilarrak legez buru gainean gangarra munduarekin haserre dago alboan dagoen / egunero / ikasgelako makarra.

GOTIKOA

Txima luzeak, larruzko txupa ta piercingak ezpainetan / tatuajeak belaunetan / arrakadak belarrietan argitan baino nahiago dute ibili beti / bizitzea / egon ilunpetan.





PIJOA

Mobil garesti, markako prakak,
sari askotan / asteen behin / urtero manikura
burmuina baino gehiago lantzen
dute / ari dira / da kanpoko itxura.

HIPSTERRA

Hauek nahiko lan izaten dute
ileak zaintzen / aurpegia apaintzen / ispilu aurrean bakarrik
guk ere nahiko genuke baina
ez zaigu hazi / oraindik ez daukagu / kokotsean bizarrik.



RAPEROA

Bisera buelta emanda jarri
"egunon osaba" / "haika mutil" / "zer dago, brother?" esanez
kantuz errimak botatzen ditu
trobadoreak / Eminemek egiten duen / bertsolari batek legez.



Zuen burua ez baduzue
horrela ikusten / identifikatzen / inon kokatu, hobeto
bada garaia bertsozaleen
elkarte bat / tribu berria / lagunen taldea sortzeko.